



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

**Zenbait zerga aldaketa onartzen
dituen Foru Arau Proiektuaren txosten
ekonomikoa eta genero inpaktua**



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Zergabilketan eragina duten arau aldaketen identifikazioa
3. Foru Arau Proiektuaren generoari buruzko txostena
4. Foru Arau Proiektuak dakartzan aldaketen eragina zergabilketan



1. SARRERA

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan zerga arloko zenbait neurri onartzen dituen Foru Arau Proiektuak. Neurri horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga propioei dagozkie beti, txosten honen ondorioetarako. Kalkulatu nahi izan da zenbateraino aldatuko den zergabilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordeztatu proiektu berrian jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, haiek aztertzea eta gaur indarrean daudenekin alderatzea baizik.

Indarrean dagoen araudia eta proposatzen dena alderatuz identifikatu ahal izan dugu zein diferentzia normatibok eragiten duten modu berezian zergabilketan. Era berean, zerrenda horretatik zergabilketan *a priori* gehien eragiten dutenak aukeratu dira; aintzat hartuak izateko behar besteko oinarri ekonomiko fidagarriak eskaintzen ez dutenak, ordea, hortik kanpo utzi ditugu.

Aldaketen eragina kuantifikatzeko, banan-banan aztertu dira neurriak; gertatzen den aldea kuota likidoan konparatu dugu beti, hau da, indarrean dagoen araudiaren arabera ateratzen den kuota dagokion aldaketa aplikatuta ateratzen denarekin konparatu da.

Txosten honek beste hiru atal ditu sarrera honekin batera. Bigarrenetan, proiektuan jaso eta zergabilketan eragina duten neurri nagusiak zerrendatzen dira, betiere kalkulu fidagarriak egiteko datuak erabilita. Horretarako, indarrean dagoen idazkera eta proposatutakoa transkribatu ditugu. Hirugarren atalean, neurri fiskal horien generoari buruzko txostena aurkezten da. Eta laugarren atalean, neurri bakoitzak zergabilketan izango duen eragina kuantifikatu da.



2. ZERGABILKETAN ERAGITEN DUTEN ALDAKETEN IDENTIFIKAZIOA

<i>Foru Arau Proiektuaren eta indarrean dagoen araudiaren arteko aldeak</i>	
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	
<i>10/2006 Foru Araua</i>	FORU ARAU PROIEKTUA
Ondare irabaziak. Harpidetza eskubideak	
49 artikulua. Berariazko balorazio arauak.	49 artikulua. Berariazko balorazio arauak.
«a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan -finantza tresnen merkatuari buruzkoan- definituta dauden balore-merkatuetako batean negoziatzeko onartutako baloreak, sozietate edo entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten dutenak, kostu bidez eskualdatzeagatik, irabazia edo galera eskurapen balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea izango da. Eskualdaketa balio hori eskualdaketa egunean merkatuan duen kotizazioa izango da edo, kotizazioa baino handiagoa izanez gero, hitzartutako prezioa. Eskurapen balioa zehazteko, harpidetza eskubideen eskualdaketa lortutako zenbatekoa kenduko da. Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, harpidetza eskubideen eskualdaketa lortutako zenbatekoa eskubide horien sorburu diren baloreen eskurapen balioa baino handiagoa bada, diferentzia hori ondare irabazitzat hartuko da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa gauzatzen den zergaldian.	«a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan -finantza tresnen merkatuari buruzkoan- definituta dauden balore-merkatuetako batean negoziatzeko onartutako baloreak, sozietate edo entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten dutenak, kostu bidez eskualdatzeagatik, irabazia edo galera eskurapen balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldea izango da. Eskualdaketa balio hori eskualdaketa egunean merkatuan duen kotizazioa izango da edo, kotizazioa baino handiagoa izanez gero, hitzartutako prezioa. Balore horietatik datozen harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa ondare irabazitzat hartuko da eskualdatzailearentzat, eskualdaketa hori egiten den zergaldian.



Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren karga tasa.	
78 artikulua. Aurrezpenaren oinarri likidagarriari aplikatuko zaion karga tasa Aurrezpenaren oinarri likidagarriari ondorengo eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio: 4.000 eurotaraino 100eko 20a. 4.000,01 eurotik aurrera 100eko 23a.	78 artikulua. Aurrezpenaren oinarri likidagarriari aplikatuko zaion karga tasa Aurrezpenaren oinarri likidagarriari ondorengo eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio: 1.500 eurotaraino 100eko 21a. 1.500,01 euro eta 10.000 euro bitartean 100eko 23a. 10.000,01 eurotik aurrera 100eko 25a.
Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga berezia.	
	Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga berezia. 1. Zerga honen zergadunek lortzen dituzten sariak karga berezi batez zergapetuko dira honako sariak direnean: a) Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietate Estatalak eta autonomia erkidegoetako organo edo entitateek antolatutako loteria eta apustuen sariak, Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetatik eratorritakoak eta, orobat, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari baimendutako joko-modalitatetatik datozenak. b) Gizarte-laguntzako jarduerak irabazi asmorik gabe egiten dituzten entitateek edo erakunde publikoek antolatutako loteria, apustu eta zozketen sariak, erakunde horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean finkatuta badaude eta aurreko letran adierazitako erakunde edo entitateen helburu berberak badituzte. Karga berezia independenteki exijituko da loteriako dezimo, zatiki edo kupoi saritu bakoitzeko edo apustu saritu bakoitzeko.



	2. Sarien zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo txikiagoa denean, sariak karga berezitik salbuetsiko dira. Sarien zenbateko osoa 2.500 eurokoa baino handiagoa denean, zenbateko horretatik gorako zatiari dagokionez zergapetuko dira. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da baldin eta loteriako dezimo, zatiki edo kupoiaren zenbatekoa, edo egindako apustuarena, gutxienez 0,50 eurokoa bada. Zenbatekoa 0,50 eurotik beherakoa denean, aurreko paragrafoan adierazitako gehieneneko zenbateko salbuetsia proportzionalki murriztuko da. Sariak titulartasun partekatua duenean, aurreko paragrafoetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia titularkideen artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera. 3. Aurreko 2. apartatuan aipatutako zenbateko salbuetsia gainditzen duen kopurua izango da karga bereziaren oinarri ezargarria. Saria gauzetan jasotzen bada, oinarri ezargarria kalkulatzeko begiratu behar da sariaren merkatu baliotik zer zatik gainditzen duen, behin konturako sarrera kenduta, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako zenbateko salbuetsia. Sariak titulartasun partekatua duenean, oinarri ezargarria titularkideen artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera. 4. Karga bereziaren kuota osoa kalkulatu da 3. apartatuan aurreikusitako oinarri ezargarriari ondorengo eskala aplikatuta: 1.500 eurotaraino 100eko 21a. 1.500,01 euro eta 10.000 euro bitartean 100eko 23a. 10.000,01 eurotik aurrera 100eko 25a. Xedapen gehigarri honen 6. apartatuan aipatzen diren atxikipenak edo konturako sarrerak bakarrik gutxituko dira kuota osotik.
--	---



	5. Karga bereziaren sortzapena lortutako saria ordaintzen edo ematen den momentuan gertatuko da. 6. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako sariak atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta egongo dira foru arau honen 107., 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Atxikipena edo konturako sarrera 100eko 20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria karga bereziaren oinarri ezargarriaren zenbatekoa izango da. 7. Xedapen honetan aurreikusitako sariak ez dira aintzat hartuko zergaren autolikidazioa aurkezteko obligazioa, foru arau honen 104.1 artikuluan jasotakoa, ezartzearen ondorioetarako. Hala ere, xedapen honetan aurreikusitako sariak jaso dituzten zergadunek autolikidazio bat aurkeztu behar dute karga berezi honengatik, kasuan kasuko zerga zorra kalkulatu, eta zenbatekoa Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako lekuan, eran eta epeetan ordaindu. Alabaina, autolikidazio hori ez da aurkeztu beharko lortutako sariaren zenbatekoa aurreko 2. apartatuan aipatutako zenbateko salbuetsia baino txikiagoa denean. 8. Xedapen honetan aurreikusitako sariak ez dira integratuko zergaren oinarri ezargarrian, eta ez dira aintzat hartuko foru arau honen 104. artikulua 2. apartatuko c) letran xedatutakoaren ondorioetarako. Xedapen honetan jasotakoaren arabera egindako atxikipenek edo konturako sarrerek ez dute zergaren kuota likido osoa gutxituko, eta ez dira kontuan hartuko foru arau honen 113. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. 9. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako jokoetatik eratorritako sariak xedapen honetan ezarritakotik kanpo geratuko dira.»
--	---



Murrizpena batera tributatzeagatik

75. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik	75. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik.
1. Foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra urteko 4.114 euro murriztuko da autolikidazio bakoitzeko.	1. Foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra urteko 4.176 euro murriztuko da autolikidazio bakoitzeko.
2. Aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.574 eurokoa izango da, foru arau honek 100. artikulua 2. apartatuan jasotako familia unitateen kasuan.	2. Aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.628 eurokoa izango da, foru arau honek 100. artikulua 2. apartatuan jasotako familia unitateen kasuan.

Oinarri orokorraren eskala

77. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren eskala.

.....

oinarria	kuota	gainerakoa	tasa
0	0	15.160	%23,0
15.160	3.486,80	15.160	%28,0
30.320	7.731,60	15.160	%35,0
45.480	13.037,60	19.490	%40,0
64.970	20.833,60	25.030	%45,0
90.000	32.097,10	30.000	%46,0
120.000	45.897,10	55.000	%47,0
175.000	71.747,10	aurrera	%49,0

.....

77. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren eskala.

.....

oinarria	kuota	gainerakoa	tasa
0	0	15.390	%23,0
15.390	3.539,70	15.390	%28,0
30.780	7.848,90	15.390	%35,0
46.170	13.235,40	19.790	%40,0
65.960	21.151,40	25.410	%45,0
91.370	32.585,90	30.450	%46,0
121.820	46.592,90	55.830	%47,0
177.650	72.833,00	aurrera	%49,0

.....

Kenkari orokorra

80. artikulua. Kenkari orokorra.	80. artikulua. Kenkari orokorra.
Urteko 1.354 euroko kenkaria egingo dute zergadunek. Autolikidazio bakoitzeko egin behar da kenkari hau.	Urteko 1.375 euroko kenkaria egingo dute zergadunek. Autolikidazio bakoitzeko egin behar da kenkari hau.



Kenkaria ondorengo ahaideengatik													
81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik 1. Kenkari hau egingo da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko: a) 570 euro urtean, lehenengoagatik. b) 705 euro urtean, bigarrenagatik. c) 1.192 euro urtean, hirugarrenagatik. d) 1.408 euro urtean, laugarrenagatik. e) 1.841 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik. 2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, 326 euroko kenkari osagarria egingo da urtean, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera dagokionaz gain. 	81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik 1. Kenkari hau egingo da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko: a) 579 euro urtean, lehenengoagatik. b) 716 euro urtean, bigarrenagatik. c) 1.210 euro urtean, hirugarrenagatik. d) 1.430 euro urtean, laugarrenagatik. e) 1.869 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik. 2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, 331 euroko kenkari osagarria egingo da urtean, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera dagokionaz gain. 												
Kenkaria aurreko ahaideengatik													
83. artikulua. Kenkaria aurreko ahaideengatik. 1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 272 euroko kenkaria egin daiteke. 	83. artikulua. Kenkaria aurreko ahaideengatik. 1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 277 euroko kenkaria egin daiteke. 												
Kenkaria adinarengatik													
86. artikulua. Kenkaria adinarengatik. 1. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa duen zergadun bakoitzeko, adinaren kenkaria aplikatuko da jarraian adierazten denaren arabera: <table border="1"><thead><tr><th>Adina (behe muga)</th><th>Kenkaria Euroak</th></tr></thead><tbody><tr><td>65</td><td>326</td></tr><tr><td>75</td><td>596</td></tr></tbody></table>	Adina (behe muga)	Kenkaria Euroak	65	326	75	596	86. artikulua. Kenkaria adinarengatik. 1. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa duen zergadun bakoitzeko, adinaren kenkaria aplikatuko da jarraian adierazten denaren arabera: <table border="1"><thead><tr><th>Adina (behe muga)</th><th>Kenkaria Euroak</th></tr></thead><tbody><tr><td>65</td><td>331</td></tr><tr><td>75</td><td>605</td></tr></tbody></table>	Adina (behe muga)	Kenkaria Euroak	65	331	75	605
Adina (behe muga)	Kenkaria Euroak												
65	326												
75	596												
Adina (behe muga)	Kenkaria Euroak												
65	331												
75	605												



2. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 65 urtetik gorako zergadunek 326 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 20.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,0326. 3. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 75 urtetik gorako zergadunek 596 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 20.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,0596. 4. Artikulu honen ondorioetarako, oinarri ezargarritzat hartuko da foru arau honen 67. eta 68. artikuluetan aipatzen diren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri ezargarria batzetik ateratzen den zenbatekoa. Oinarri ezargarri orokorrak saldo negatiboa ematen duenean, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.	2. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 65 urtetik gorako zergadunek 331 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 20.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,0331. 3. Oinarri ezargarria 20.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 75 urtetik gorako zergadunek 605 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 20.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,0605. 4. Artikulu honen ondorioetarako, oinarri ezargarritzat hartuko da foru arau honen 67. eta 68. artikuluetan aipatzen diren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri ezargarria batzetik ateratzen den zenbatekoa. Oinarri ezargarri orokorrak saldo negatiboa ematen duenean, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.
<i>Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko Foru Araua aldatzea.</i>	
Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua.	FORU ARAU PROIEKTUA
21 artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota egingo den kenkaria. «1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, foru arau honen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kenkariaren oinarriaren %30 kendu dezakete kuota osotik.»	21 artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota egingo den kenkaria. «1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, foru arau honen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kenkariaren oinarriaren %10 kendu dezakete kuota osotik.»



3. FORU ARAU PROIEKTUAREN GENEROARI BURUZKO TXOSTENA

3.1. Txostenaren oinarriak eta helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6.artikuluaren xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoaren, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

3. 2. Generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa den identifikatzea

Dagokigun Foru Arau egitasmoak zerga desberdinetan aldaketak ekarriko ditu. Zentzu honetan, neurriek orokorrean aldaketa teknikoak dakartzate, genero inpakturik ez dute edukiko, beraz. Hala ere, PFEZean emango diren aldaketak aztertuko ditugu, pertsonengan -emakume nahiz gizonengan- eragin zuzena duten aldetik. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 10/2006 Foru Arauaren ondorengo aldaketak aztertzen dira:

- Aurrezkiaren oinarri likidagarriari aplikatzen zaion eskala aldatu da: eskalako tarteak bitik hirura pasa dira eta zerga-tasak igo egin dira. 4.000 eurotik beherako aurrezkiaren oinarriak gehiago zergapetuko dira, baita 10.000tik gorakoak ere, eskala berri honen ondorioz.
- Mezenasgo jarduerengatik kenkariak, lehentasunezko jardueretara bideratuak ez diren kasuetan, kuotan %30eko murrizketa edukitzetik %10eko kenkarira pasako dira.
- Zergako tarifa eta kenkari pertsonal batzuk (ondorengo eta aurreko ahaideengatikoa, adinarengatik...) deflaktatu egingo dira, %1,5ean.
- Loteriako zenbait sari salbuetsiak egotetik zergapetuta egotera pasako dira, aurrezkiaren oinarri likidagarriaren eskala berbera erabiliz, baina oinarri horretatik aparte. Gainera, jatorrian %20 atxikipena edukiko dute.
- Akzioen harpidetza eskubideen salmentan lortutako irabaziak Ondare Irabazi moduan zergapetuko dira aurrerantzean - lehen akzioen salmenta orduan erosketa balioa txikitzen zuten-. Aurreratu egiten da, beraz, zergapetze unea.

Aldaketa hauek gizon eta emakumeei zuzenean eragiten dietenez, genero berdintasunaren printzipioa integratzeko kontuan hartu beharrekoak dira.



3.3. Genero inpaktuaren balorazioa

Dena den, nahiz eta proposatutako aldaketak gizon eta emakumeei zuzenean eragiten dien, neurri gehienak (deflaktazioa, loteriak...) unibertsalak dira, hau da, ez daude talde zehatz bati bideratua.

Deflaktazioaren kasuan, bere helburua da zergadun ororen erosketa-ahalmena eta zerga-zama maila mantentzea. Eta ikusten da zerga-bilketan duen eragina handiagoa dela gizonengan, PFEZren progresibitatearen ondorioz. Oinarri ezargarrari desoreka handia dago (gizonek zenbatekoa handiagoak dituzte) eta PFEZaren izaera progresiboak dela-eta, gizonek PFEZari ekarpen handiagoa egitea diote. Ondorioz, tarifaren deflaktazioaren eragina neurri handiagoan jasotzen dute, eta eskuragarri dauden kenkariak gehiago aprobetxatu ditzakete.

Nahiz eta zenbait desberdintasun agerian geratu, esan daiteke horiek egiturazkoak direla, eta ezin da esan deflaktazioak sortuak direnik. Izan ere, deflaktazioa neurri tekniko bat besterik ez da, zerga inflazioan ematen diren aldaketetara egokitzeko.

Proposatzen diren neurriak genero ikuspegitik neutralak direla esan arren, ondorengo taulan zehazten da zerga-bilketan duten efektua nola banatzen den sexuaren arabera.

NEURRIA	Emakumeak	Gizonak	% emakumeak	% gizonak
Aurrezpenaren oinarriaren eskala	6.249.802	8.239.104	43,1	56,9
Mezenasgo jarduerengatiko kenkariak	1.737.374	1.990.897	46,6	53,4
Deflaktazioa	-5.113.841	-9.605.297	34,7	65,3
Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga berezia(*)	7.910.400	7.910.400	50,0	50,0
Harpidetza eskubideen salmentak	+913.601	+1.153.369	44,2	55,8
Guztira	11.697.336	9.432.601	55,4	44,6

Zenbatekoak eurotan

(*)Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga bereziaren kasuan ez daukagu gizon eta emakumeen arteko banaketaren daturik; eta, gainera, sariak oso aleatorioak direnez, banaketa %50ean egitea erabaki da.



4. FORU ARAU PROIEKTUAK SARTUTAKO ALDAKETEN ERAGINA ZERGABILKETAN

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.

1. Harpidetza eskubideen ezarpen berria.

Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik jasotako zenbatekoa ondare irabazia izango da eskualdatzea gauzatzen den unean. Arau zaharrarekin baloreen eskurapen balioa zehazteko, harpidetza eskubideen eskualdaketa lortutako zenbatekoa kentzen zen. Beraz, irabazia sortzen zen harpidetza eskubideak datozen baloreen eskualdatzea gauzatzen zen unean.

Zerga-bilketan aurreikusten den eragina 2.066.970 eurokoa da. %55,8 gizonezkoak bereganatzen dute eta %44,2 emakumeak.

Neurri honen eragin nabarmenena finantzarioa izango da (sarrerak aurreratu egiten dira) eta zerga-ordainketa handituko da soilik harpidetza eskubideak datozen baloreen eskualdatzean ondare irabaziak salbuetsiak daudenean (heriotzagatik irabazi salbuetsia).

Zerga-bilketa handiago hau 2013 ekitaldian gauzatuko da.

2. Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren karga tasa.

Aurrezpenaren oinarriari dagokion tarteak eta tasak aldatzen dira eta tarte berri bat ezartzen da eskalan.

Zerga-bilketan aurreikusten den eragina 14.488.906 eurokoa da, eta 2014 ekitaldian gauzatuko da.

Zerga-bilketan aurreikusten den gehikuntza sexuaren arabera zatituta ikus daiteke 14,5 milioi euro gehiago jasoko direnetatik %56,9 (8,2 milioi euro) gizonen aldetik etorriko direla eta beste %43,1a (6,3 milioi euro) emakumeetatik.

Neurria	Eragina zerga-bilketan				
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	% emakumeak	% gizonak
Aurrezpenaren eskala berria	14.488.906	6.249.802	8.239.104	43,1	56,9

Zenbatekoak eurotan



Aurrezpenaren oinarria bera aztertuta, zerga-bilketa gehikuntza gehiena 10.000 eurotik gorako oinarria duten zergadunetik etorriko da: 9,7 milioi euro gehiago ordaindu behar dute (igoeraren %66,7a) eta aurrezpenaren oinarria daukatela aitortzen duten %5,4 dira kopuruan.

Aurrezkiaren oinarri tarteak	Aitorpenak		Zerga-bilketan dituen ondorioak	
	Kopurua	%	Guztira	%
0-1.500	210.515	71,9	621.612	4,3
1.500 - 4.000	39.904	13,6	1.801.683	12,4
4.000 - 10.000	26.689	9,1	2.402.010	16,6
>10.000	15.682	5,4	9.663.601	66,7
Guztira	292.790	100,0	14.488.906	100,0

Zenbatekoa eurotan

Aurrezkiaren oinarria duten zergadunetik %71,9k 1.500 eurotik beherako zenbatekoa aitortzen du. Beraz, hauendako tasa igoera %1ekoa da soilik (%20etik %21era). Guztira 621.612 euro gehiago ordaindu beharko dute, eta batez besteko 3 euro suposatzen du.

3. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga berezia.

Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako 2.500 eurotik gorako sariak zergapetzen dira, eta lehen sari hauek salbuetsita zeuden. Zerga-bilketan aurreikusten den eragina 14.832.000 eurokoa da, eta 2014 ekitaldian gauzatuko da.

Sari hauek sorreran atxikipenak izango dituztela 2013 ekitaldian kontutan izan behar dugu (Gipuzkoan ez dira ordainduko, gure lurraldetik kanpoko entitateak antolatutakoak direlako). Atxikipen hau sariari dagokion tasa likidatzekoan edukiko da kontuan. Beraz, 2014 ekitaldian ordaindu beharreko kopurua 2014 ekitaldirako aurreikusitako zerga-bilketa (14.832.000) eta 2013 ekitaldian ordaindutako atxikipenen (12.360.000) artean dagoen aldea izango da (2.472.000 euro).

4. Deflaktazioa

Zerga- bilketan aurreikusten den eragina -14.719.139 eurokoa da, eta murrizketa hau 2014 ekitaldian gauzatuko da.

Kontzeptuka honela banatzen da:



Deflaktazioa	Eragina zerga-bilketan	
	Guztira	% gizonak
Murrizpena batera tributatzearagatik	-979.659	6,7
Tarifa	-6.024.675	40,9
Kenkari orokorra	-6.211.589	42,2
Kenkaria ondorengo ahaideengatik	-1.240.085	8,4
Kenkaria aurreko ahaideengatik	-7.397	0,1
Kenkaria adinarengatik	-255.733	1,7
Guztira	-14.719.139	100,0

Zenbatekoa eurotan

Zergadunen oinarri ezargarriaren zenbatekoaren arabera honela banatzen da zerga-bilketan ematen den 14,7 milioi euroko murrizketa:

Oinarri ezargarri tarteak eta deflaktazioaren ondorioak	Aitorpenak		Eragina zerga-bilketan	
	Kopurua	%	Guztira	%
0-10.000	80.924	20,6	-380.423	2,6
10.000 - 20.000	111.859	28,5	-3.018.502	20,5
20.000 - 30.000	93.281	23,7	-3.349.831	22,8
30.000 - 40.000	57.232	14,6	-3.283.143	22,3
40.000 - 50.000	22.863	5,8	-1.651.354	11,2
50.000 - 60.000	9.780	2,5	-896.720	6,1
60.000 - 70.000	5.757	1,5	-590.619	4,0
70.000 - 80.000	3.340	0,9	-414.379	2,8
80.000 - 90.000	2.100	0,5	-282.926	1,9
90.000 - 100.000	1.406	0,4	-195.446	1,3
>100.000	4.296	1,1	-655.794	4,5
Guztira	392.838	100,0	-14.719.139	100,0

Oinarri ezargarria 10.000 eta 40.000 euro tartean duten zergadunak (guztien %66,8 dira) murrizketa osoaren %65,6 suposatzen dute (9,6 milioi euro).

Deflaktazioaren ondorioak sexuka zatituta ikusi daiteke 14,7 milioi euroko murrizketatik %65,3 gizonetakoak xurgatzen dute eta %34,7 emakumeak.



Deflaktazioa	Eragina zerga-bilketan				
	Guztira	Emakumeak	Gizonezkoak	% Emakumeak	% Gizonezkoak
Murritzpena batara tributatzeagatik	-979.659	-136.770	-842.889	14,0	86,0
Tarifa	-6.024.675	-1.927.752	-4.096.923	32,0	68,0
Kenkari orokorra	-6.211.589	-2.495.854	-3.715.736	40,2	59,8
Kenkaria ondorengo ahaideengatik	-1.240.085	-451.339	-788.746	36,4	63,6
Kenkaria aurreko ahaideengatik	-7.397	-2.784	-4.613	37,6	62,4
Kenkaria adinarengatik	-255.733	-99.341	-156.392	38,8	61,2
Guztira	-14.719.139	-5.113.841	-9.605.297	34,7	65,3

Zenbatekoa eurotan

5. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko araudian eginiko aldaketak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, kalkulaturako kenkariaren oinarriaren %10 kendu dezakete kuota osotik, eta lehen %30 kentzen zuten.

Zerga-bilketan aurreikusten den eragina 3.728.271 eurokoa da. %53,4 gizonezkoak bereganatzen dute eta %46,6 emakumeak. Zerga-bilketa handiago hau 2014 ekitaldian gauzatuko da.



ZERGABILKETAN IZANIKO ERAGINAREN ERRESUMENA

2013 URTEA

1. Harpidetza eskubideen ezarpen berria.: 2.066.970 euro.

3. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien karga: 12.360.000 euro. (*)

(*) Zenbateko hori loteria eta apustuen atxikipenei dagokio. Hasiera batean, sari horiek sorreran atxikipena dute, eta Gipuzkoatik kanpoko entitateak antolatutakoak direnez, atxikipena ez da gure lurraldean ingresatuko. Indarrean dagoen araudiak ez du inolako doiketarik aurreikusten horri buruz; beraz, atxikipen horiek jasotzen dituzten administrazioekin konpentsaziorako mekanismoak definitzea falta da.

2014 URTEA

2. Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren karga tasa: 14.488.906 euro.

3. Loteria eta apustu batzuetatik eratorritako sarien karga: 2.472.000 euro. (*)

(*) Zenbateko hori sariak aurrezpenaren eskalan tributatzea eta dagokion atxikipenaren arteko diferentzia da.

4. Deflaktazioa: -14.719.139 euro

5. Mezenasgoaren pizgarriak: 3.728.271 euro

2014 urtean zerga-bilketan ematen den aldaketa: 5.970.038 euro

Donostia, 2012ko azaroaren 19a

AZTERLANEN ATALEKO TEKNIKARIA

O.I.
AZTERLAN ATALEKO BURUA